

1276/2022 EBAZPENA, abuztuaren 17koa, Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakao ESIko Psikiatriako-Desintoxikaziako Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentearen martxoaren 23ko 456/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakao ESIko Psikiatriako-Desintoxikaziako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 13ko EHAA 135. zk. eta 2022ko uztailaren 23ko BOE 176. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 16an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barrualde-Galdakao ESIko Psikiatriako-Desintoxikaziako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Barrualde-Galdakao ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakaoan, 2022ko abuztuaren 17a.



Barrualde-Galdakao zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA

I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAO ESI-KO PSIKIATRIAKO-DESINTOXIKAZIOKO
ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Leire Erkoreka González

Baztertuak:

- Inor ez